


Eskuin aldera eta ezker aldera (I)



zufen deskomunioak bota zitezkeela herri oso baten gainera; egun haietan Prawdak "langile abertzale" batzuk goratzen eta famatzen zituela, burruka egiazki sozial eta nazional bat zegoela, Ald. Komunisten baten itsukeriak itsutu gabe; Moskuko Prawdak Ald. Komunista hura kritikatu eta langileok goretzen zifuen artean, Vatikanoko Prawdak ezin duela konprenitu, langile abertzale katolikoen jokabidea; gure bazterretan progresismoa paperezko gerrekin baino seriokiago defendatu izan dela, etab. Baina gaitzailerekin ez da zorrik eduki ohi, eta gutien-gutien esker onaren zorra.

Gaur atzo ere bada: atzo harek oraindik darraien ginoan behintzat.

GAURKO GAUR

Halare, gaur eskuinaz eta ezkeraz aritzerakoan, jeneralean, askoz geroago has arazten zait "gaur-rari": 60 aldera. Eta gizarte hau Euskal Herrikoak bakarrik mugatu ohi da (horratxo, mugapen hau egiterik ez dagoela, dioten haiek, ez dira mugapen hauxe egiten inoren atzetik gelditzen!). Honela, perspektiba jeneraleko batetan ezkeriar edo ezkerrean aladu ager zitezkeenak, operazio tipi honen eskuindar huts bihurtu daitezke.

Erlatibidade hau ahazterik ez dago. Geroko azterpideetan inola ez ahaztekoan, halare, ontzat eman daiteke, gure judizioen gaia eta denbora metodikoki horrelaxe mugatzea. Horrela daduzkagu, 60 az geroko euskal eskuin eta ezker bezala ikusita daudenak.

(Diferentziaok lehenago ere ba omen ziren, eta bitxia omen da, nola gerra ondokoei diferentzia ideologikoak "zuhurki gorde" zaizkigun. Niri bitxia salakuntza hori egiten zait: nik ezaguturiko herririkak diferentzia horien historiekien beteta zuden, historia tristez gehienetan. Baina beharbada egonen da Gipuzkoan herrien bat, non gurasoek umeei diferentzia horiek "zuhurki gordetzen" dizkien, eta oraindik ez dugu kasu harriarri hori inbestigatu).

GIZALDI BERRI

Lehenengo hurbiltze batetan, hazaldi zaharren aldean herri gutzia har dezakegu ezkeriartzat. Bion situazioak berak esplikatzen du hori.

Geroak desarrollo bat zeharo hautsi zuen. Eta gerra ondoko urteetan ere, abiada berriak ezin asmatu ahal izan zen, bolara batetan. Esaterako L. Mitxelena Euskal literaturaren etorkizuna azterketan, gero eta ugariago dardion negar-haria sumatzen du gure literaturan: ik. Idazlan Hautatuak, 1972, or. 23 eta hurr. Gerra ondoko egoera latzean egin zen literaturaren herri gehiagotarako, ikus liburu honetan bertan Asaba zaharren baratz eta Sarrera hitz batzu. JAKIN sortako Salbatore Mitxelena ere ikus daiteke. Salbatore adibidea berezia bait da.

Gerra ondokoan pesimismoa da nagusi. Ez dago ezertarako indarrak, negar egiteko ez bada. Hazaldi honi mundua gurupide iruditzen zitzaion. Bai bere esperantzak eta bai demokraziek traironatu zuten: ez zuten irtenbiderik ikusten. Euskararen heriotza kantatzen zuten, mendian pinua sartzea, urruntasuna, eta nolabait bere ahuleziaren eta desesperantzenaren sinbolo bezala har zezaketen dena: "hiltzera doan abenda baten / zotinak dituz denak" (S. Mitxelena). Gehienez ere negar aski egin zutenen, errekaotei eta ximeletoi kantatzen zien, kontsolatzeko, edo erlijioan bilatzen zuen babes eta gozagarri (optima: aina optioak badu bere onik ere).

Urte latzak ziren: "urteok gutxi izanagatik, urte larriak izan dira, gizaizid gizaizid bere hartan irau duen gauza asko aldatzeko eta deuseztatzeko indarra beregan zekartzenak". Etsi nahi ez, zerbait egin nahi zutenek, tresnak prestatzeari ekin zioten: lehen-lehenik, euskara "kaletartzeari". Eta horrelaxe esaten bazen ere, hori ez zen inoiz asmo "filologiko" soil izan. Euskara kaletartzeak egoera berriari atxikitzea esan nahi zuen: "Euskara biziko baldin bada —eta gure aurrerokoan ez baina geure izara benetan azalduko baldin badugu—, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi ta ez: gaurok ezinegona, bizibeharra eta ezin bizia, handinahia, diru-gosea, maitasun-gorrotoko; gaurok gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua— nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huseriazko ibilera galdua eta bera baino goragoako zerbaiten alde

gizona bere buruari uko egitera behartzen duen indar ikutua" (L. Mitxelena). Hemen, jadanik, esistentzialismoaren kutsua nabaria da.

ODISEA ESISTENZIALISTA

Itzibiraren lehenengo une eta maila, bide zaharretatik berrietara, melankolikatik angustiatara ta haserretara pasatzea izan zen. Jende berriak, eta jende zaharren gutziak kontra, egin zuen hori beste zenbait "lehen alai eta harro bezain kopetulin eta ukarok" agiri artean: "Jende berria gailendu ta, gazteagoa, zaharagoen uestek maiz txorakeriatzat dauzkaten sorietakoa. Zaharraok, ni ere artean naizela, inoiz baino hobeto ari beharzen ezin okerago jokatuak gara horien uestez alde askotatik. F. Krutwig izan zen, noski, besteak beste, bide horretatik lehenbizi abiatu zena eta merezi du aitormen hau aspaldi honetan ahaztuxea dagoenez gero" (L. M., Asaba zaharren baratz). Beste abiatzaile bat, krutwigen antzeko "naturaleza protestante" bat hura ere, Mirande izan genuen.

Beste bat, Txillardegi Leturiaren egunkari ezkutuari (1957) Mitxelena "mugarri baten antzera, lur berrien seinalea eta ezaguarria" deritza. Areago, nobela honen mamiaz: "ez dut ueste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larriak, horren zinezko aitortik, horrenbesteko garraiki sarkorrik" (Sarrera hitz batzu). Eta honoko han ere: "Txillardegi eta Leturiaren egunkari ezkutuak gizaizid berri baten eta gizaizid horren obren atzindari gisa agertzen zaizkit".

Ondorenean Mitxelena Lizardigandik (garai baten sinbolo bezala hartuta) zertorren mundua eta orain abiarazi konparatzen dizkigu: "Ez da zalantzarik Lizardigan... Alferrik bilatuko duzue beragan Europa eta mundu gutzia dardarazten hasia zen lur-ikararen berriak Dardarak ez gintuen artean ukitu (...) Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez zik, ez zen parietetan arteisurik ageri". Honez gero, ordea, sinemena galduta da, dena koloka dago gure inguruan, eta azkeneko, hazaldi berriak dena problematizatu du: "...ezin ditzaiegu besterik gabe guregana uestek, sinesteak, bizibideak, ohiturazkoak direlako bakarrik, zehatz eta astiro esaminatu gabe".

Hori da inportantea, nik ueste: bat-batean mundua, seguridatea galduta eta gupidagabeki problematizaturik, biluzirik, aurkitzen zela. Krudelki problematizaturik, gainera.

Orduan problematizatu zen radikalki fedea (ez Eliza edo "erlijioa" bakarrik), problematizatu zen maitasuna (ez maitasunaren organizazio formak bakarrik), lana ez langileen situazioa bakarrik), eskaldutasuna ere bai, gaur bezain radikalki egin ere (Joseba Intxausti eta neran ere, disgustoren batzuk eramanadakoak gara) ta esistentziaren zentzua bera. Esistentzialismoak egin ohi zuten orokotasunarekin problematizatu zen. Eta aldeaz aurretik soluzio positiborik bilatu gabe, absurduarekin gelditzeko konforme, hori ere esistentzialismoak egin ohi zuten bezalaxe.

Orduan hasi zen belaualdi berriarentzat, oraindik dirauen odisea, Europatik ailegaten zaizkigun haizeen eta gure harkaitzarten erdian. Eta bat-batean gizaizid gizaizid seguru egondako balioen eta arauen mundu gutzia porrotakuz zenez gero, odisea esistentzialista izan behar hura, derrigor. Gerra ostek eta hain zuzen modan zegoen filosofia esistentzialista, are indartzenago zuten kritizismo absurduaraino radikala hau. Garai hartako Sartre eta Camus irakurri beharko lirateke, orduko gazterien ipiritua ulertzeko. Mikel Lasaren poemetan azterre-nik franko aurki daiteke: "DANA ta NADA-k zir-kulua bukatzen dute".

Ez da Kasuala. Zenbait begitan orduan budismoak une batez hartu zuten distira (geroago akelarreak hartuko dute); inora ez garaman soluzio ilogikoa bezala agiri zen. Beraz, problemen erdian gelditu nahi bait zen, inora ihesi joan gabe, soluziorik ez zen soluzio batetan egiten zen amets.

Aski sakon aztertu gabe dakukagu bolara larri hau, eta beharrezkoa genuke hori egitea: oker ez banago, bere hasiera behin eta berriro berregiten duen hazaldia bait dugu oraino hau. Etengabeko krisian, horrexegatik. Ezin dituelako bere hasierako oinarriak superatu.

(Hemengo honak, halare, ez du historia bat izan nahi, azterketa historiko baten premia gogarazi nahi lukeen nota soil baiziki).

(Jarraitzeko)

JOXE AZURMENDI

Euskal gizartea batera har eta, goitik behera ebakitzen gero, bi hazaldi biziki desberdinen diferentzia aurkitzen dugu: elkarri borroka egiten dioten bezainbeste zaizkio elkarri arrotz bi hazaldiak.

Beste ikuspegi bat ere har daiteke: gizarte hau zeharka, horizontalki begira liteke. Eta, orduan, eskuinaren eta ezkerrearen diferentzia sumatzen dugu. Hala egiten da, behintzat, geroz eta sarriago gure artean. Baina nondik noraino eta noizdanik noiz arte redatzen da gizarte hau? Eskuinaz eta ezkeraz hitzeginez gabilta nonahi: baina nola mugatu gure baitapen eta solases? Ez bait da beti erraza, elkar aditzea. Eta eskuin/ezker konzeptuen iluntasunaz aparte, erabiltzen den epe luze edo laburreko perpektibagatik bakarrik ere bai: egunotan edo hilabete honetan edo aurtan, ezkeriarrik radikalea agiri dena, perspektiba luze batetan beharbada eskuindar ere ager daiteke. Eta uneotan eskuindar dirudienean, beharbada zinezko ezkeriartza dukegu perspektiba luzeagoan.

NOIZDANIK NOIZ ARTE DA "GAUR"?

Ez dago garbi, "gaurko" gizartea esanez, zer adierazi nahi den. "Gaur" hori azkeneko herrogei urteok baldin badira, dudarik gabe (hegoaldeko) Euskal Herriosa ezkerrean jarri beharko litzateke: batez ere, batzuek esaten duten moduan, Euskal Herri hau hegoaldera asko zabaltzen diren egitura eta historia sozial batuetatik kanpora, zilegi ez bada. Eta egite ere, kanpotik ikusten gaituztenek, gehienetan halaxe egiten dute.

Bururik txarrena geuk dugu. Erraz ahaztu dugu: atzo beltzak eta bost nork ikusi zituen, gorri izateagatik; Bilbo burges eta txobinista hori noizpait "hiri arnegatua" zela; bazeudela "probintzia traidore" batzuk, leial izateagatik traidore bezala madarikatuta; mundu honetako baztar triste klerikal batetan "sasi-errepublikak boltxebista" bat omen egon izan dela, katoliko militantek buru zituela gainera, "herri boltxebisten adiskide" bat bazezola; "hiritar peligraso" deklaratu zitezkeela herri batetako seme denak; gaurok baino zorrigaitz gehiago sortzen

DEPURACION DE AGUAS S. A.



Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantogiko eta igeritsako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gardoniak, 44

BILBAO